

HEZKUNTZA. Erreforma saiatzeko laborategi gisa lurralde hori hautatu dela azpimarratu dute



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Enhunka lagun bildu zituzten euskarazko irakaskuntzaren aldeko taldeek.

Kalitate Legea «Nafarroaren aurkako eraso zuzena» dela salatu dute

Manifestazioa egin dute Iruñean euskarazko irakaskuntzaren aldeko sindikatu eta taldeek

Alberto Barandiaran | IRUÑEA

PPren gobernuak prestatu duen Kalitate Legearen ezaugarri «uniformatzaile, zentralista eta eskumenen urratzailea» Euskal Herri osoaren, eta, beraz, Nafarroaren aurkako «eraso zuzena» dela oihukatu zuten atzo Iruñean euskarazko irakaskuntzaren aldeko sindikatu eta taldeek.

Guk gure hezkuntza lemapean, eta ELA, LAB, EILAS, Sortzen-Ikasbatuaz, Ikastolen Elkartea eta IAK deiturik, ehunka lagun manifestatu ziren arratsaldean, eta erreforma «saiatzeko laborategi» Nafarroa dela salatu zuten.

Manifestazioan herrialde osoko ikastetxe publikoko eta ikastoletako ordezkariak izan ziren, eta San Frantzisko Ikastetxearen atarian amaitu zen, eskola honetan D ereduari eusteko egiten ari den lanaren onespenez gisa edo. Duela bi aste CCOO, UGT eta Herrikoak deituriko manifestazioak ere San Frantziskoko gurasoei omenaldia egin zien.

Legearen izaera atzerakoia nabarmendu zuten

Manifestazioaren bukaeran irakurritako idazkiak azpimarratzen du legearen izaera atzerakoia, eta iragandako garaia gogoratzen dituela.

«Frankismoaren garaietara itzuli beharko litzateke hezkuntza eremua horren gordinki manipulaturik ikusteko, helburu politiko eta partidista hutsengatik. Dudarik balego, hor dugu Aznar jauna: Hezkuntza Ministerioak baino gehiago hitz egiten du publikoki Kalitate Legearen beharraz».

Manifestatzaileek, era berean, Nafarroan jada hainbat neurri praktikan jartzen ari direla nabarmendu nahi izan zuten, eta aipatu zen CEUn inposaketa, edo Humanitateen Dekretua edo gutxiengo ikasgaien dekretua jada egokitu direla.

«Ezagutzen ari gara, halaber, oraindik Kalitate Legea onartu

gabe badute ere, honen aurreaplikazio batzuk, nola 0-3 urteko zikloaren trataera asistentziala, hala DBHrako hiru gaitasun curricularren araberrako programazioak».

«Gu Europara begira gaude», dio testuak, «mugez gaindi. Gure erreferentziak kidetasun sozial eta kulturaletan oinarritzen dira, hau da, mugez gaineko kontzeptuetan».

Bukatzeke, hezkuntza sistema propioaren beharra berretsi zuten deitzaileek, «kontsentsu zabalean oinarriturik, kalitatezko hezkuntza ahalbidetuko duena, eta euskararen normalizazioan aurrera pausoak emango dituen».

Legebiltzarrak lege egitasmoa bertan behera uzteko eskatu dio PPren gobernuari

Erredakzioa | GASTEIZ

Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak Espainiako Gobernuari eskatu dio Hezkuntzaren Kalitate lege egitasmoa bertan behera utz dezala, eta, bitartean, alorreko ordezkari-ekin harreman prozesuari ekin diezaiola «behar bezalako adostasuna lortu ahal izateko».

Legebiltzarrak eskaera onetsi zuen EAJk, EAK, EB-IUk eta PSEk hitzartutako zuzenketaren bidez. PPk kontra bozkatu zuen, eta Batasuna, berriz, abstenitu egin zen.

Ekimenaren proposatzaileek uste dute Administrazio zentralak erkidego autonomoekin eztabaidatu beharko lukeela, «eskumenei zor zaien begirunetik abiatuta». Irakasleen, ikasleen eta beste batzuen elkarrekin berdin egin beharko lukeela adierazi dute onartutako proposameneari.

Lege egitasmo «atzerakoia» delako

EAJko Txomin Aurrekoe-txeak «ikuspegi azaleko eta atzerakoia» egotzi zion PPren gobernuaren testuari. LOGSE, berriz, «egokitzat» jo zuen.

EAKo Martin Aranburuk esan zuen Kalitate Legeak dituen neurri asko indarrean ezartzerik ez dela Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko hezkuntza sisteman: «Espainiako Gobernuak hobe luke huts egin duela onartu, eta prozesuari berriro ere hasiera ematea».

Bestetik, Batasuneko Jone Goirizelaiak PPren «inposaketa» salatu zuen.

2002 UDako EUSKARA IKASTAROAK
CURSOS DE EUSKERA EN VERANO

ESKAINITZA
EUSKALDUNITZE-ALFABETATZE maila guztiak, HIZKUNTZA PERFIKAK, MINTZA SAIORAKO TALDE BEREZIAK ETA EGA.

ERRITMOAK Aukeran.
PREZIOA 87 euro
16 urtetik gorakoentzat.

BULEGO ORDUTEGIA 08:00-15:00

IKASTAROAREN IRAUPENA
Ekainaren 24tik uztailaren 24ra
Irailaren 3tik 27ra (EGA).

MATRIKULATZEKO EPEA
Ekainaren 3tik 20ra.

PASAIKO UDAL EUSKALTEGIA
Euskadi Etorbidea 61 (Anbulatorioaren ondoan)
20110 PASAIA
Tel.: 943 39 33 18 - Faxa: 943 40 05 07
euskal@pasaia.net

Tradebi
EB Traducciones Itzulpenak SL

ITZULPENETAN ZURE AUKERA

Hizkuntz guztiak
Teknikoa
Legala
Zinpekua
Presazkoa
Kalitatea ziurtatua

T 94 447 41 15 - F 94 447 13 87 - Email tradebi@sarenet.es

LARRAMENDI IKASTOLA - ANDOAIN

INFORMATIKA APLIKAZIOEN GARAPENA
Goi Mailako Heziketa Zikloa

DESARROLLO de APLICACIONES INFORMÁTICAS
Ciclo Formativo de Grado Superior

AZKEN PLAZAK - ÚLTIMAS PLAZAS

Tf 943.593.525
www.andoainikastola.net
Txistoki Pasealekua z/ g (Kiroldegi ondoan)